



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 199. INFORMAZIO BULETINA

2024ko uztaila eta abuztua



Europar Batasunak  
kofinantzatua

Cofinanciado por  
la Union Europea



2024ko uztaila eta abuztua

## ALBISTEAK

**Aldundiak tokiko erakundeak modernizatzeko azpiegitura teknologikoen proiektuetarako eta administrazio elektronikoko oinarrizko zerbitzuen elkarreragingarritasunerako proiektuetarako funtsak jaso ditu.**

**Proiektuak Europar Batasunak finantzaturako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan sartzen dira.**

Laguntza Lurralde Politikako Ministerioak 2022ko ekitaldian toki-erakundeetako administrazioak digitalki eraldatzeko eta modernizatzeko egindako **dirulaguntzen deialdiari** dagokio.

Laguntza hori Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 11. osagaiaren 3. inbertsioan jasotzen da, administrazio publikoen eraldaketa digitalera eta modernizaziora zuzenduta dago.

Zehazki, dirulaguntzen deialdian jasotako bost ildo estrategikoetatik bitan jardun da:

- 4. ildo estrategikoa: azpiegitura digitalak. Proiektu honen helburua Datuak Prozesatzeko Zentron gaitasuna, segurtasuna eta efizientzia energetikoa handitzea izan da, horiek baitira Gipuzkoako Toki Erakunde guztien datua eta administrazio elektronikoa gobernatzeko gakoak. Era berean, udalen kudeaketa-prozesuak hobetzeko aukera eman du, datu-zerrendak biltegitutzeko eta modu masiboan kontsultatzeko software-azpiegitura instalatuz eta framework digitala eguneratuz.
- 5. ildo estrategikoa: administrazio digitaleko oinarrizko zerbitzuen elkarreragingarritasuna.

Jarduerak Gipuzkoako Foru Aldundiak garatu ditu 20.000 biztanletik beherako Gipuzkoako udalentzat, funtzio informatikoa eta hainbat tresna digitalen bilakaera garatzeaz arduratzen den IZFE baliabide propioaren bitartez.

2,6 milioi euroko laguntza onartu da guztira, eta 1,4 milioi euro jaso dira.

**Beasaingo Antzizarreko biribilgunea egiteko eta District Heating sistema integratzeko proiektuko obrak lizitatu dira.**

**District Heating sistema integratzeko proiektua Euskadiko 2021-2027 EGEF Programak kofinantzatuko du.**

Jasangarritasun Departamentuko Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza, hainbat lankidetzeta-plan eta -esparrutan oinarrituta, hainbat jarduera egiten ari da azken urteotan energiaren arloan, lurraldean energia aurrezte eta energia berriztagarrien aprobetxamendua sustatzeko.

Lizitazioaren xede diren obrek, Bide Azpiegituretako Departamentuak bultzatutakoek, Beasaingo Antzizar auzoan biribilgune bat eraikitzea aurreikusten dute, bai eta District Heating sistema bat instalatzea ere, Fundiciones del Estanda SA enpresa udal kiroldegiarekin lotzeko. Horretarako, biribilgune berriaren galtzadaren azpitik doazen bi hodi jarriko dira, prozesu industrialen energia termikoko soberakina



### 2024ko uztaila eta abuztua

aprobetxatzeko, kiroldegiaren behar energetikoen zati bat betetzeko. Jasangarritasun Departamentua arduratuko da District Heating sistema instalatzeko obren jarraipenaz.

Lizitazioaren oinarriko aurrekontua 640.781,50 eurokoa da (District Heating sistemaren instalazioari dagokiona 255.223,30 eurokoa da), eta eskaintzak aurkezteko epea 2024ko uztailaren 30ean amaituko da.

District Heating sistemaren integrazioa Euskadiko EGEF 2021-2027 Programak kofinantzatuko du, 2.1 helburu espezifikoaren barruan: "energia-efizientzia eta berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketa sustatzea".

**Informazio gehiago: [Kontratazio Plataforma](#).**

### Ibai-ibilguak lehengoratzeko hainbat obra abian.

#### Proiektuak Euskadiko 2021-2027 EGEF Programak kofinantzatuko ditu.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ibaia lehengoratzeko obra batzuk hasi ditu, 2020-2035 aldirako Oztopoak Iragazkortzeko Plan Zuzentzailean jasotakoak.

Zehazki, 2024an oztopoak eraisteko obrak egingo dira Sarobe (Oiartzun), Granadaerreka eta San Pedro (Aia) eta Angiozar (Bergara) ibaietan, baita Urtsuaren ibaia (Idiazabal) iragazkortzeko obrak ere.

Hasitako obren artean, honako hauek daude:

1. Idiazabalgo toma de aguas presak eraistea (1.fasea).
2. Urtsuaren oztopoak iragazkortzea. Larrastegiberri, Bere Naia eta Garakoleaberri.
3. Angiozar errekastoko (Bergara) Lohidi I, Lohidi II eta Lohidi Bolu presa txikiak eraistea.

Obren inbertsioa, guztira, 330.889,18 euroko da.

Jarduera horiek guztiak Euskadiko EGEF 2021-2027 Programak kofinantzatuko ditu, 2.7 helburu espezifikoarekin: "natura, biodibertsitatea eta azpiegitura berdeak babestea eta sustatzea, baita hiri-eremuetan ere, eta kutsadura mota oro murriztea".



Aurrekontu osoa 120.000 €  
Presupuesto total

EBren finantzaketa 48.000€  
Financiación de la UE

#### IBAIEN LEHENAGORATZEA RESTAURACIÓN FLUVIAL

IDIAZABALGO TOMA DE AGUAS PRESAK ERAISTEKO  
PROYECTO DE DEMOLICIÓN DE LAS PRESAS DE TOMA DE AGUAS DE IDIAZABAL, EN EL RÍO URTSUARAI, FASE I



2024ko uztaila eta abuztua



Aurrekontu osoa 85.000 €  
Presupuesto total

EBren finantzaketa 34.000€  
Financiación de la UE

### IBAIEN LEHENAGORATZEA RESTAURACIÓN FLUVIAL

URTSUARAREN OZTUPAK IRAGAZKORTZEKO PROIEKTUA.  
LARRASTEGIBERRI, BERE MAIA ETA GARAKOLEABERRI.  
PROYECTO DE PERMEABILIZACIÓN DE OBSTÁCULOS DEL  
URTSUARAN, LARRASTEGIBERRI, BERE MAIA Y GARAKOLEABERRI.



Cofinanciado por la Unión Europea



2



Aurrekontu osoa 30.000 €  
Presupuesto total

EBren finantzaketa 12.000€  
Financiación de la UE

### IBAIEN LEHENAGORATZEA RESTAURACIÓN FLUVIAL

ANGOZAR ERREKASTOKO (BERGARA) LOHIDI I, LOHIDI II ETA  
LOHIDI BOLI PRESA TXIKIAK ERABSTERO PROIEKTUA  
PROYECTO DE DEMOLICIÓN DE LOS AZUDES LOHIDI I, LOHIDI II Y  
LOHIDI BOLI EN LA REGATA ANGOZAR (BERGARA)



Cofinanciado por la Unión Europea



3

Informazio gehiago: "[Obra Hidraulietako](#)" webgunea.

## Mugikortasunaren Europako Astea.

Irailaren 16tik 22ra bitartean.

Mugikortasunaren Europako Astea Europako Batzordeak hiri-mugikortasun iraunkorrari buruz egiten duen sentsibilizazio-kanpaina da.

Aurtengo gaiak "[Espazio Publiko Partekatua](#)" du izena, eta espazio publikoa partekatzeak gizarteari ekartzen dizkion onura ugariak islatu nahi ditu: ekitate sozialaren eta bide-segurtasunaren mailak hobetzen dira, zarata eta kutsadura atmosferikoa murrizten dira eta bizi-kalitatea handitzen da.

Nahi duten udalek [hurrengo estekan](#) eman dezakete izena.

Informazio gehiago:

- [Mugikortasunaren Europako Astea](#) (gaztelaniaz)
- [2024ko fitxa](#) (PDF)



2024ko uztaila eta abuztua

## **Tokiko erakundeek onartutako iruzurraren aurkako planen fiskalizazioari buruzko txostena.**

**Kontu Auzitegiak eta autonomia-erkidegoetako kanpo-kontrolako organoek modu koordinatuan egin dute fiskalizazioa.**

Fiskalizazioak tokiko erakundeek BEEPn jasotako jarduerak gauzatzeko onartutako iruzurraren aurkako planak izan ditu xede, bai eta iruzurra prebenitzeko jarduerak indartzeko erakundeek garatutako beste edozein mekanismo ere.

Zehazki, 214 toki-erakunde hautatu ziren, BEEPeko funtsen esleipendunak, 1030/2021 Agindua indarrean jarri eta lehen seihilekoan erakunde betearazle bihurtu zirenak, 2021eko urriaren 1etik 2022ko martxoaren 31ra bitartean. Besteen artean, Zumarragako eta Donostiako Udalak aukeratuak izan ziren.

Auzitegiaren ustez, erakunde gehienentzat ahalegin handia izan da iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken aurkako borrokarako eskakizunetara egokitzea. Hala ere, kasu askotan, neurriak iruzurraren aurkako planak onartzera mugatu dira. Bertan jasotako neurri batzuk ezarri gabe geratu dira, baita iruzurraren aurka borrokatzeko kultura garatzea ere..

**Informazio gehiago: [Fiskalizazio txostena orrirako lotura](#) (gaztelaniaz)**



2024ko uztaila eta abuztua

## EUROPAKO DEIALDIAK

### **NEXT GENERATION FUNTSEKIN FINANTZATUTAKOAK**

Lanbide-heziketako bikaintasun-zentroyen estatuko sareko 2. modalitatera bideratutako laguntzen deialdia 2024an, Europar Batasunak finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan (NextGenerationEU). [Informazio gehiago.](#)

Toki-erakundeetan gaikuntza digitaleko zentroyen sarea sortzeko laguntzen deialdia, 2024ko ekitaldi ekonomikorako, NextGenerationEU Europar Batasunak finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. [Informazio gehiago.](#)

MOVES III Programa: Euskal Autonomia Erkidegoko mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarrien programa. [Informazio gehiago.](#)

PREE 5000 Programa: Euskal Autonomia Erkidegoko erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikineterako birgaitze energetikoko programa. [Informazio gehiago.](#)

Ekonomiaren hainbat sektoretan energia berriztagarri termikoen instalazioak ezartzeko pizgarri-programak. [Informazio gehiago.](#)

Administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa. *Eskabideak aurkezteko epea 2024ko urriaren 31n amaituko da.* [Informazio gehiago.](#)

2021eko uztailaren 5eko Ebazpenaren aldaketa, mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarri-programa (MOVES III programa) arautzen duten oinarriak onartzen, deitzen eta argitaratzen dituen, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. *Eskaerak aurkezteko epea 2024ko abenduaren 31ra arte luzatzen da.* [Informazio gehiago.](#)

Energia-komunitateen proiektu pilotu berezietarako pizgarrien programa berriko laguntzak emateko oinarri arautzaileak (CE implementa programa), Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. [Informazio gehiago.](#)

Energia berriztagarrien eta biltegitratzearen proiektu berriztaileetan inbertitzeko eta sistema termiko berriztagarriak ezartzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileak (energia berriztagarri berriztaileen programa), Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. [Informazio gehiago.](#)

Hidrogeno berriztagarria (klusterrak edo haranak) ekoizteko eta kontsumitzeko proiektuetarako pizgarrien programaren deialdietarako oinarri arautzaileak, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. [Informazio gehiago.](#)



### 2024ko uztaila eta abuztua

Hidrogeno berriztagarria (klusterrak edo haranak) ekoizteko eta kontsumitzeko proiektuetarako pizgarrien programaren deialdia, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. *Eskabideak aurkezteko epea irailaren 19an hasi eta urriaren 29an amaituko da. [Informazio gehiago.](#)*

Zero emisio garbiko ekonomiara igarotzeko beharrezkoak diren ekipoen balio-katea indartzeko proiektuetarako laguntzen deialdia, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. *Eskabideak aurkezteko epea irailaren 25ean hasi eta azaroaren 6an amaituko da. [Informazio gehiago.](#)*

1484/2024 Foru Agindua, uztailaren 18koa, udalei eta tokiko erakunde txikiei herritarren partaidetza sustatzeko 2024ko deialdiari dagozkion dirulaguntzak ematekoa. *[Informazio gehiago.](#)*

Diru-laguntzen deialdia, Hiri Osasungarrien Espainiako Sarea (RECS) indartzeko eta Osasuna Sustatzeko eta Prebenitzeko Estrategia toki-mailan ezartzeko. *Eskabideak aurkezteko epea irailaren 5ean amaituko da. [Informazio gehiago.](#)*

Tokiko Jardunbide Egokien sariak ekonomia zirkularra sustatzeagatik. *Proposamenak aurkezteko epea irailaren 30ean amaituko da. [Informazio gehiago.](#)*

Udalei zuzendutako diru laguntzen 2024ko deialdiaren ebazpena, bizikletabideen tokiko sarea garatzeko eta bizikletetarako azpiegiturak erosi eta instalatzeko. *[Informazio gehiago.](#)*

Gizarteratzeko, Haur Bermerako eta Pobreziaren aurkako Borrokarako Programaren esparruan eragiketak hautatzeko deialdia, Europako Plus Gizarte Funtsarekin (FSE+) kofinantzatuta. *Eskabideak aurkezteko epea urriaren 17an amaituko da. [Informazio gehiago.](#)*

Eraikinetako telekomunikazio-azpiegiturak hobetzera bideratutako hainbat jarduera gauzatzeko laguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia, Europar Batasunak finantzatutako NextGeneration EU Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan (UNICO-Eraikinak programa). Zabalik dago eskaerak aurkezteko epea. Laguntza hauek emateko, segidako prozedurari jarraituko zaio. *Eskabideei erantzuteko, horiek aurkeztu diren hurrenkerari zorrotz jarraituko zaio, funtsak agortu arte. [Informazio gehiago.](#)*



2024ko uztaila eta abuztua

## BESTE DEIALDIAK

**AMIF.** Aterpe, Migrazio eta Integrazio Funtza. EBtik kanpoko giza-salerosketaren biktimentzako laguntza.

- **AMIF-2024-TF2-AG-THB-01.** THBren (gizakien trafikoa edo salerosketa) biktima diren hirugarren herrialdeetako nazionalak babestea eta integratzea. 2. misioa (Task Force 2), ekintza-dirulaguntzak (AG).

**CREA. Creative Europe.** Culture Helps. Kulturak lagutzen du. Ukrainako errefuxiatuen eta haien sektore sortzaileen integrazioa.

- **CREA-CULT-2023-COOP-UA.** Ongizate psikologikoa babesteko banakako dirulaguntzak.

**ERC.** Europako Ikerketa Kontseilua. Beka aurreratuak, advanced grants.

- **ERC-2024-ADG.**

**DeremCo.** Ekonomia zirkularra material konposatuen sektorean. I3. Berrikuntzako inbertsio-tresna. Manufaktura-lerroa.

- **I3-2021-INV1-MANU.** DeremCo izenak "konpositeen demanufaktura eta birmanufaktura" aipatzen du, soluzio sistemiko berritzaileen garapena inplikaturik, material konposatuek bizitza baliagarriaren amaieran duten potentzial handia fabrikazio-iturri berri gisa desblokeatzeko, bi gidalerro nagusi oinarri hartuta: Fabrikazio Jasangarria eta Digitalizazioa. Hurrengo epemuga, 2024.09.04.

**ISF.** Barne Segurtasuneko Funtza. Migratzaileen trafikoaren aurkako eta ikerketa digitaletarako lankidetzak.

- **ISF-2024-TF2-AG-COP.** Elkarte operatibo komunak (COP) migratzaileen trafikoari aurrea hartzeko eta aurka egiteko hirugarren herrialdeetako agintari eskudunekin. 2. misioa (Task Force 2), ekintza-dirulaguntzak (AG). Hurrengo epemuga, 2024.09.04.
- **ISF-2024-TF2-AG-DIGITAL.** Ikerketa digitalei buruzko proposamenen deialdia. Hurrengo epemuga, 2024.09.05.

**Digital Europe.** Adimen artifiziala eta hodei-konputazioa duten komunitate aurreratuentzako datu-espazioa.

- **DIGITAL-2022-CLOUD-AI-03-DS-SMART.** Europako datu-esparruaren barruko proiektu pilotuen deialdia komunitate adimendunentzat (1. aurkezpen-erronda). Hurrengo epemuga, 2024.09.01.

**Digital Europe.** Zibersegurtasuna. ETEei laguntzeko Estatuko zentzori laguntzea. Ebaluaziorako eta hobekuntzarako laguntzak (Estonia). Erresiliencia bultzatzea (Txekia). Hezkuntza informala (Lituania).

- **DIGITAL-ECCC-2022-CYBER-03-NAT-COORDINATION.**
- **Zibereraldaketa, 1. maila (ebaluazioa) eta 2. maila (hobekuntza).** **NCCEE.** Estoniako (EE) eta gainerako estatu kideetako koordinazio-zentro nazionalen sarea hedatzea. Estonian erregistratutako ETEei laguntza finantzarioa ematea, zibersegurtasunaren arloan duten posizioa hobetzeko, zentzoren laguntzarekin. Hurrengo epemuga, 2024.09.02.
- **Zibermehatxuen aurkako erresiliencia sustatuz.** **NCC-CZ.** Txekiako zentroa eta enpresak.
- **CyberUP.** Lituaniako ETEen erresiliencia zibernetikoa hobetzea eta zibersegurtasunaren arloko hezkuntza-eduki ez-formal berriak garatzea.





### 2024ko uztaila eta abuztua

**EU4Health, Osasunerako EB.** Txertoen zentroa, arnas osasuna, farmakoen fabrikazioa, antibiralen garapena. Larrialdiei Prestatzeko eta Erantzuteko HERA Agintaritza.

- **CP-g-24-** Lankidetzeta-proiektuetarako (CP) dirulaguntzak (G). Hurrengo epemuga, 2024.09.05. EU4H-2024-PJ-01.
  - -1 . HERAren Txertoak Garatzeko Europako Zentroa (CEPI). CP-g-24-10.
  - -2. Arnaserako hurrengo belaunaldiko babesa. CP-g-24-11.
  - -3 . Sendagaietarako fabrikazio-teknologia eta -prozesu berritzaileak. CP-g-24-12.
  - -4 . Antibiral berrien garapena. CP-g-24-105.

**LIFE.** Ingurumen Programa. Elkartzeko esparru-akordioak dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeen ohiko jardunerako laguntzak.

- **LIFE-2024-NGO-OG-FPA.** Elkartzeko esparru-akordioak (FPA) funtzionamendurako dirulaguntzetarako (OG) irabazi-asmorik gabeko erakundeei laguntzeko (NGO) batez ere ingurumenaren eta/edo klimaren aldeko ekintzaren eremuetan jarduten dutenak, energia garbi baterako trantsizioa barne. Hurrengo epemuga, 2024.09.05.

**LIFE.** Ingurumen Programa. Proiektu estrategiko integratuak (SIP) eta naturazkoak, (SNAP).

- **LIFE-2024-STRAT-** Hurrengo epemuga, 2024.09.05.
  - -CLIMA-SIP-two-stage. Ekintza klimatikoa.
  - -ENV-SIP-two-stage. Ingurumena.
  - -NAT-SNAP-two-stage. Naturako proiektu estrategikoak (SNAP).

### EuropeAid, garapenerako laguntza.

- RELEX / EEAS, EBko Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza eta Zerbitzua. Ekintzak Indiar Ozeanoko eskualdean, Afrikako 7 herrialdetan, Asiako 3tan, eta Fiji, Surinam eta Ipar Mazedonian. Gizarte demokratikoa, eskubideak, lan-osasuna eta hezkuntza, justizia, gazteria, generoa, indarkeriaren biktimak, jasangarritasuna eta biodibertsitatea, ura, energia, klima.
- **Europako Kanpo Harremanetarako Zerbitzuaren webgunea, EEAS.**
  - Indiar Ozeanoa. EuropeAid/181361/DD/ACT/Multi . Gizarte zibileko erakundeen arteko aliantzak indartzea.
  - Kenia. NAF Programa (NaturAfrica). EuropeAid/180615/DD/ACT/Multi. ERiSaWa eremuan (ekialdeko Riftaren sabanak eta arro hidrografikoak) biodibertsitatea eta komunitate-baliabide jasangarriak kontserbatzea.
  - Hegoafrika. EuropeAid/181436/DD/ACT/ZA. Gizarte zibileko erakundeak. NDICI, Auzotasun, Garapen eta Nazioarteko Lankidetzarako Tresna. INTPA, Europako Batzordeko Nazioarteko Partaidetzarako Zuzendaritza Nagusia.
  - Eritrea. EuropeAid/181617/DD/ACT/Multi . Osasun- eta hezkuntza-sektoreei laguntzea. Hurrengo epemuga, 2024.09.02.
  - Zambia. EuropeAid/181787/DD/ACT/ZM. Gazteentzako zerbitzu lagunkoiak.
  - Etiopia. EuropeAid/181903/DD/ACT/ET . Genero-indarkeriatik bizirik atera direnentzako laguntza psikosozialeko eta osasun mentaleko eta medikoko zerbitzuak (SMAPS).
  - Madagascar. EuropeAid/181973/DD/ACT/MG. Erresilientzia-programa, gobernuz kanpoko erakundeentzako atala.
  - Lesotho. EuropeAid/182136/DD/ACT/LS. Genero, ur, energia eta aldaketa klimatikoari buruzko gizarte zibilaren ahotsak babestea.
  - Jordania. EuropeAid/182049/ID/ACT/JO. Trantsizio digitala babestea, datu pertsonalak eta adimen artifiziala babestuz.



### 2024ko uztaila eta abuztua

- Kirgizistan. EuropeAid/181528/DD/ACT/KG. Hezkuntza inklusiboa eta STEAM (zientzia, teknologia, ingeniari, arteak eta matematikak) sustatzea hiri- eta landa-eskoletan.
- Uzbekistan. EuropeAid/181824/DD/ACT/UZ. Giza eskubideak eta demokrazia.
- Fiji. EuropeAid/181673/DD/ACT/Multi. Zigor-gabetasunaren aurkako borroka.
- Surinam. EuropeAid/180775/DD/ACT/Multi. Gizarte zibileko erakundeei laguntzea.
- Ipar Mazedonia. EuropeAid/181850/DD/ACT/MK. Laneko segurtasuna eta osasuna.

**COASTOUR.** Landa-turismoko eta kostaldeko enpresa txiki eta ertain jasangarriari laguntzea. SMP-COSME-2021-TOURSME-01. Merkatu Bakarreko (SMP) eta ETEen lehiakortasuneko (COSME) Programak.

- **SMP-COSME-2021-TOURSME-01.** "COVID-19aren susperraldia turismo iraunkorraren hazkundearen eta enpresa txiki eta ertainei emandako babesaren bidez". Hurrengo epemuga, 2024.08.28.

**Elbe, Leviatad, Metastars, MedBAN, Sustain, Polrec eta Gemstone kluster-partzuergoak.** Itsas-energia eta ekonomia, defentsa, aeronautika, eraikuntza, polimeroak, fabrikazioa. Merkatu Bakarreko (SMP) eta ETEen lehiakortasuneko (COSME) Programak.

- SMP-COSME-2021-CLUSTER.
- **ELBE Eurocluster.** Itsasoko energia berriztagarrien Europako 8 klusterren aliantza. 2 laguntza prestakuntzarako eta banakako zerbitzuak berritzeko.
- **LEVIATAD.** Defentsaren sektorearen berrikuntza eta nazioartekotzea. Hurrengo epemuga, 2024.08.08.
- **METASTARS.** Aeronautikako eta defentsako klusterren sariak.
- **MedBAN.** Mediterraneoko Ekonomia Urdinaren Sare Azeleratzailea. Nazioartekotzea, berrikuntza, prestakuntza eta trantsizio bikoitza (ekologikoa eta digitala).
- **SUSTAIN.** Berrikuntza-zerbitzuak eraikin adimendunen eraikuntzetan. Hurrengo epemuga, 2024.08.27.
- **POLREC.** Birziklatzeari buruzko prestakuntza polimeroen klusterretan. Hurrengo epemuga, 2024.08.31.
- **GEMSTONE.** Esploraziorako laguntzak eta prestakuntzak, berrikuntzan eta teknologia berdearen ezarpenean prestatzeko fabrikazioko ETEetan.

**CSF,** baso-kudeaketa, orientazio klimatikoarekin. Herritarren eta lotutako eragileen parte-hartzea CSFn eta basoen berritzean. Horizon berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-CL6-2022-CLIMATE-01-05.** Klima-aldaketaren inpaktuen Europako behatokia eta klima adimenduna lehengoratzeko pilotu-proiektuak erakusteko sarea. Horizon Europeren 6. klusterra (CL6), Elikadura, Bioekonomia, Baliabide Naturalak eta Nekazaritza. Hurrengo epemuga, 2024.09.02.

**EIC, UASEEDS,** UkrainianTech. Europako Ikerketa Kontseilua. Merkataritza- eta berrikuntza-zerbitzuak Ukrainako teknologian sortzen ari diren enpresentzat. Horizon berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-EIC-2022-UKRAINIANTECH-01-01.** Startupen elkarten sare paneuroparra, Ukrainako teknologi berritzaileak Europako ekosistemetan integratzen laguntzeko eta Ukrainako operazioak hobetzeko.

**Connect and Experience UK, SV.** Erresuma Batuko eta Silicon Valleyko ekitaldiak (California). Teknologia Institutu Europarra eta bere berrikuntza eta ezagutza komunitateen KIC. Horizon berrikuntza esparrua.



### 2024ko uztaila eta abuztua

- HORIZON-EIT-2023-25-Cross-KIC-Strategic-Outreach. XKIC SO esparrua (KICen interakzioa kanpoko ikuspegi estrategikoarekin).
- **Erresuma Batua.**
- **Silicon Valley.** Ekosistemak lotzen.

**Transform 2024.** EIT Teknologiaren Europako Institutuaren fabrikazio-dibisioa eta KIC berrikuntza- eta ezagutza-komunitateena. Enpresa berrien berrikuntzak enpresa finkatuetan eta ETEetan sartzeko konexioa. Horizon berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-EIT-2023-25-KIC-EITMANUFACTURING.** Jarduera-plana 2023-25 (EITM BP 23-25). Postulazioetarako deialdi irekia. Hurrengo epemuga, 2024.09.06.

**EUROHPC JU.** Errendimendu Handiko Konputazioa (HPC). Europako baterako ekimena (JU). Programazio-lengoai aurreratua duten prozesadoreak eta azeleragailuak. Horizon berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-EUROHPC-JU-2024-DARE-SGA-04-01.** Dirulaguntza espezifikari buruzko akordioa (SGA) RISC-V teknologian oinarritutako prozesadore eta azeleragailu europarrak garatzeko (5. konputazio-belaunaldia, instrukzio-multzo murriztuen bidez). DARE partzuergoa ("Europako azpiegiturretan ikerkuntza-bikaintasun arina sortuz").

**Galileo PRS.** Satellite-sistemaren zerbitzu publiko arautua. Horizon berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-EUSPA-2023-SPACE-01-44.** Gobernuaren berariazko baimena duten erabilera-kasuak. Hurrengo epemuga, 2024.09.05.

**FILOVAX.** Filobirusen aurkako txertoak. CEPI. Epidemietarako Prestakuntza Ekimenerako Koalizioa. Horizon berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-HLTH-2023-CEPI-11-01-IBA.** Horizon-en HLTH osasun-esparrua. Berrikuntza eta merkatu-jarduera bizkortzeko ildoak (IBA). Babes handiko txertoak garatzea lehentasunezko gaixotasunetarako.

**CLIMAREST.** Arro artiko-atlantikoko ekosistemen klima-erresilientziarako aurrejarrera soziokomunitarioko ekintzak. Ozeanoetarako misioa, Horizon berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-MISS-2021-OCEAN-02-03.** Ekonomia-, gizarte-, politika- eta kultura-estandar eraginkorrak garatzea itsasoko eta kostaldeko ekosistemak lehengoratzeko eta Artikoko eta Atlantikoko arroan klima-erresilientzia handiagoa izateko. Erreplikazio-proiektuen hirugarren deialdia. "Demo 1" eskualde artikorako.

**NetZeroCities.** Horizon Europe hiri neutroen misioa. Administrazioei laguntzea hiriko klima-trantsiziorako.

- **HORIZON-MISS-2024-CIT-02-01.** Europa osoko nazio, eskualdeko eta tokiko agintariei laguntza ematea, hirien barruan klima-neutraltasunerako trantsiziorako prestatzeko. Hurrengo epemuga, 2024.09.05.

**MSCA,** Marie S.-Curie bekak. Politikak atzeraelikatze laguntzak (FTP), nazioarteko lankidetzak (INCO) eta harremanetarako gune nazionalak (NCP). Horizon berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-MSCA-2024-FTP-01-01.** Ikerketa-politiketarako atzeraelikadura. Feedback to Policy. Hurrengo epemuga, 2024.09.03.
- **HORIZON-MSCA-2024-INCO-01-01.** Nazioarteko lankidetzak. Hurrengo epemuga, 2024.09.04.



### 2024ko uztaila eta abuztua

- **HORIZON-MSCA-2024-NCP-01-01.** Harremanetarako gune nazionalen arteko nazioz gaindiko lankidetzak. Hurrengo epemuga, 2024.09.04.

**NEMO.** Hurrengo belaunaldiko metasisistema operatiboa, mugako eta hodeiko konputazioko objektuen eta eredu adimen artifiziala konbinatuta. Horizon berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-CL4-2021-DATA-01-05.** Proiektuak gauzen adimen artifiziala ustiatzen du (AIoT), AIoT-edge-cloud sistema jarraituan aldaketa bat ezartzeko (mugako konputazioan edo Edge-n zentratutako teknologiek eta hodeiko konputazioarekin edo Cloud-ekin lotuz), kode ireki, modular eta ziberseguruko metasisistema operatibo bat sortuz. Horizon Europe berrikuntzako esparru-programaren 4. klusterra, digitala, industrial eta espaziala. "Edgerentzako etorkizuneko Europako plataformak". Ikerketa- eta berrikuntza-ekintzak (RIA). # 2NEMO "deialdia.

**CORTEX2.** Elkarlaneko telepresentzia-teknologia hedatua. Horizon berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-CL4-2021-HUMAN-01-25.** Elkarreragin fisikoaren simulazio birtuala gailu mugikor edo eramangarrien bidez urrutiko lankidetzako jardura edo zereginetarako. Cortex-en bigarren deialdia. Horizon esparruko 4. klusterreko (CL4, digitalak, industrialak eta espazialak) teknologia digital emergente eta humanizatzaileen atala.

**NGI Sargasso:** Hurrengo belaunaldiko Internet. EBko eta Ipar Amerikako ikertzaile-taldeen arteko lankidetzak. Horizon berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-CL4-2022-HUMAN-01-07.** Laugarren deialdia. Horizon esparruko 4. klusterreko teknologia digital berritzaile eta humanizatzaileen atala (CL4, digitalak, industrialak eta espazialak). Ikerketa- eta berrikuntza-ekintzak (RIA).

**Batt4EU.** Belaunaldi berriko Europako baterientzako sektore arteko elkarte. Horizon berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-CL5-2024-D2-02-.** Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programaren 5. klusterra (energia, klima eta mugikortasuna). Klima-trantsiziorako sektore arteko irtenbideen D2 helburua. Hurrengo epemuga, 2024.09.05.
  - -01. Errendimendu handiko produkzio-prozesu iraunkorrak litiozko metalezko anodo egonkorretarako.
  - -02. Li-ion osteko teknologiak eta loturiko fabrikazio-teknikak mugikortasun-aplikazioetarako (5. belaunaldia).
  - -03. Gelaxken eta bateria-sistemaren enbalajearen tamaina eta pisua murriztea, material arinak eta funtzionalak integratuz, kudeaketa termiko berritzailearekin eta diseinu seguru eta iraunkorreko ikuspegiarekin.

**CCAM,** 2Zero (mugikortasun kooperatibo, konektatu eta automatizatuko, eta zero isuriko teknologiko partzuergoak ) eta Horizon esparru berritzaileko energia eta klimaren CL5 klusterraren logistika eta garraio eraginkorraren D6 helmugako beste linea batzuk.

- **HORIZON-CL5-2024-D6-01-.** Horizon Europe berrikuntzarako esparru-programaren 5. klusterra (energia, klima eta mugikortasuna). Mugikortasun eta logistikako soluzio eraginkorren D6 helmuga. Hurrengo epemuga, 2024.09.05.
  - -06. Sare multimodala eta trafikoaren kudeaketa optimizatzea, azpiegiturei, bidaiarien mugikortasunari eta salgaien garraioari buruzko datuak aprobetxatuz.
  - -07. Salgaien garraioaren deskarbonizazioa modu eskuragarrian lagunduko duten berrikuntza logistikoak zabaltzea.



### 2024ko uztaila eta abuztua

- -08. Garraio-azpiegituraren errendimendua hobetzea: kudeaketa eta eragiketa monitorizatzeko eta hobetzeko tresna eta irtenbide digital berritzaileak.
- -09. Etorbizuneko garraio- eta mugikortasun-sistemei itxura ematen dieten politikak eta gobernantza.
- -10. Uretako sistema digitalen segurtasuna, erresilientzia eta babesa bermatzea.
- -11. Aldaketa disruptiboen ondorioak garraioan: mugikortasun erresiliente, seguru eta energetikoki eraginkor baterantz.
- -12. EBn bide-segurtasunaren kultura hobetzeko esparru berria.
- **CCAM Lankidegoa:** mugikortasun kooperatiboa, konektatua eta automatizatua.
  - -01. Kontrol elektronikoko arkitekturak ibilgailu zentralizatuetan, fidagarriak, ziberseguruak eta eguneragarriak konektatutako CCAMentzat, etengabeko eragiketak eginez erabiltzailearen ingurune hurbilean (muturreko Edge modalitate).
  - -02. Segurtasun-bermea, eboluzio dinamikoan dagoen garraio-sistema batean. erlazionatuta dauden CCAM eta giza/makina interfazeko (HMI) agertokietan oinarritua.
  - -03. Trafiko mistoko aktore heterogeneoen orkestrazioa CCAM ekosistemaren barruan.
  - -04. Adimen artifiziala CCAM aplikazioetarako erabaki aurreratuak eta kolektiboak hautemateko eta hartzeko.
  - -05. CCAMen ezagutza-transferentzia eta know-how sendoa, EU-CEM Europako ebaluazio-metodologia komuna hedatzeko eta ezartzeko funtsezko bideetarako.
- **2ZERO Lankidegoa.** Zero isuri neutroak helburu dituen partzuergoa.
  - -13. 2ZERO lankidetzaren sarea, EBko estatu kideen eta herrialde elkartuen ikerketa-politikan, emisiorik gabeko errepideko mugikortasuna bizkortzeko.

**Creative Europe:** ikus-entzunezko lanen garapena. CREA-MEDIA-2023-DEVMINISLATE.

- **CREA-MEDIA-2024-DEVMINISLATE.** Ikus-entzunezko lanak erakusteko multzoak garatzeko laguntza, sortzaileak merkaturatzeko. Hurrengo epemuga, 2024.09.10.

**RE-CENTRE.** Go International. Mexiko eta Txilera nazioartekotzea altzari, etxe, ekologia eta teknologia klusterretarako. SMP-COSME-2021-CLUSTER-01. Merkatu Bakarreko Programa (SMP) eta ETEen lehiakortasuneko (COSME).

- **RE-CENTRE.** "Lehiakortasun handiagoa trantsizio digital eta berdearen eta erresilientziaren bidez". Mexiko eta Txileko enpresekin partzuergoak egiteko deialdia. Hurrengo epemuga, 2024.09.12.

**EuropeAid, garapenerako laguntza.** RELEX / EEAS, EBko Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza eta Zerbitzua. FRANCIS deialdia herritarren berrikuntzarako eta beste batzuk Ekialdeko Europa (5), Afrika (3), Asia (2) eta Haitirako.

- Gardentasun instituzionala eta finantzarioa, ekonomia, nekazaritzako elikagaien sektorea, natura, energia berdea, lan-eskubideak, prestakuntza, gizarte zibila, haurtzarora, emakumea, kultura.
- **EEAS Europako Kanpo Harremanetarako Zerbitzuaren webgunea.**
- FRANCIS, "berrikuntza frugaleko" proiektua, herritarren eskura eta herritarren zerbitzura dauden eguneroko baliabideekin. Programaren "bigarren erronkarako" deialdia. EuropeAid/181971/DD/ACT/Multi. Hurrengo epemuga, 2024.09.27.
- Haiti. EuropeAid/181880/DD/ACT/Multi. Dinamismo kulturala babestea. Hurrengo epemuga, 2024.09.30.
- Timor-Leste. EuropeAid/181475/DD/ACT/TL. Esku-hartze komunitarioak sustatzea haurren eta ugaltzeko adinean dauden emakumeen nutrizio-egoera hobetzeko. Hurrengo epemuga, 2024.08.26.



### 2024ko uztaila eta abuztua

- Camboya. EuropeAid/181931/DD/ACT/KH. Gizarte zibileko erakundeei laguntzea, bereziki gardentasunean, kontuak ematean eta gainbegiratzean parte hartzen dutenei.. Hurrengo epemuga, 2024.09.14.
- Gabón. EuropeAid/181971/DD/ACT/Multi. Babestutako Eremuen eta lehentasunezko paisaien kudeaketarako laguntza. Hurrengo epemuga, 2024.09.27.
- Somalia. Energia berderako eta garapen ekonomikorako hezkuntza eta prestakuntza teknikoa eta bokaziozkoa. EuropeAid/181975/DD/ACT/SO. Hurrengo epemuga, 2024.09.19.
- Zambia. EuropeAid/182163/DD/ACT/ZM . Hezkuntza formalera itzultzeko eta bokazio-bideak eta bide alternatiboak baliatzeko aukerak sortzea eskola uzten duten nerabeentzat.. Hurrengo epemuga, 2024.09.03.
- Moldavia. EuropeAid/181624/DD/ACT/MD. Lanaren Estatuko Ikuskaritzaren gaitasun instituzionalak indartzea, EBko jardunbide onenekin bat etorritik lan-arauak betearazteko. Hurrengo epemuga, 2024.09.10.
- Moldavia. EuropeAid/182186/DD/ACT/MD. Senidetzea: Legebiltzarraren gaitasunak eta EBra atxikitzeko prozesuan duen eginkizuna sendotzea. Hurrengo epemuga, 2024.09.16.
- Moldavia. EuropeAid/182200/DD/ACT/MD. Nekazaritza eta elikagaien senidetzea - Sektorekako jarraipena, datuen kudeaketa eta ordainketen administrazioa indartzea. Hurrengo epemuga, 2024.09.16.
- Ipar Mazedonia. EuropeAid/182201/DD/ACT/MK. Landare-osasun sistema nazionala indartzea. Hurrengo epemuga, 2024.09.26.
- Montenegro. EuropeAid/182351/DD/ACT/ME . Gobernantza korporatiboko xedapenak eta Kapitalen Merkatuko Agintaritzaren administrazio-gaitasuna indartzea. Hurrengo epemuga, 2024.09.23.

**LIFE 2024.** Ingurumenaren (-ENV) eta naturaren gobernantza (-GOV) eta gobernuz kanpoko erakundeentzako laguntza (NGO). Klima: egokitzapena (CCA) eta arintzea (CCM). Loturak Europako Bauhaus Berria ekimen sortzaile eta iraunkorrekiko. Zirkularitasuna eta kutsaduraren aurkako borroka.

- **LIFE-2024-NGO-OG-SGA.** Ohi-jarduerarako dirulaguntzak (OG) gobernuz kanpoko erakundeentzat (NGO) berriazko akordio bidez (SGA). Hurrengo epemuga, 2024.09.17.
- **LIFE-2024-SAP-CLIMA-CCA.** Klima-aldaketara egokitzea. Hurrengo epemuga, 2024.09.17.
- **LIFE-2024-SAP-CLIMA-CCM.** Klima-aldaketa arintzea. Hurrengo epemuga, 2024.09.17.
- **LIFE-2024-SAP-CLIMA-GOV.** Gobernantza eta informazio klimatikoa. Hurrengo epemuga, 2024.09.19.
- **LIFE-2024-SAP-ENV-ENVIRONMENT.** Europar Bauhaus Berria ekimen sortzaile eta iraunkorrekiko lankidetzaproiektuak, baita ekonomia zirkularreko beste batzuk, hondakinetatik eratorritako baliabideak ere. Baita airea, ura, lurzorua, zarata edo produktu kimikoen kutsaduratzeko egitasmoak. Hurrengo epemuga, 2024.09.19.
- **LIFE-2024-SAP-ENV-GOV.** Ingurumenaren gobernantza. Hurrengo epemuga, 2024.09.19.
- **LIFE-2024-SAP-NAT-GOV.** Naturaren gobernantza. Hurrengo epemuga, 2024.09.19.

**EURATOM,** NRT programa (Ikerketa eta Prestakuntza Nuklearra). Instalazioetara sartzeko OFFER plataforma. ENEN2plus hezkuntza-sarearen trukeak eta gaitasunak hobetzeko ekimena. Fusio nuklearrerako eta elkarte publiko-pribatua sustatzeko plataforma.



### 2024ko uztaila eta abuztua

- **OFFERR.** HORIZON-EURATOM-2021-NRT-01-12. Hurrengo epemuga, 2024.09.30.
- **ENEN2plus.** "Mugikortasuna Europako eskumen nuklearren arlo baterako". HORIZON-EURATOM-2021-NRT-01-13. Hurrengo epemuga, 2024.09.30.
- **HORIZON-EURATOM-2024-NRT-01-01.** Fusio- eta prestakuntza-industriaren Europako plataforma, elkarre publiko-pribatu baterako. Hurrengo epemuga, 2024.09.17.
- **HORIZON-EURATOM-2024-NRT-01-02.** Eskumen Nuklearren Europako Ekimena. Hurrengo epemuga, 2024.09.17.

**Digital Europe.** Mikroelektronika (txipak) eta zibersegurtasuna. Estatuko zentro espezializatuak eta Horizon esparru berritzaileari lotutako ildo pilotu edo esperimentalari laguntzea.

- **DIGITAL-Chips-2024-SG-CCC-1.** Gaitasunen CCC zentroak. Laguntza generikoak edo sinpleak (SG). Hurrengo epemuga, 2024.10.02.
- **DIGITAL-Chips-2024-CSA-CCC-2.** CSA ekintzak, CCCak koordinatzeko eta laguntzeko. Hurrengo epemuga, 02.10.2024.
- **DIGITAL-Chips-2024-CSA-CDP-1.** Estatuko zentroentzako laguntzak txipak diseinatzeko CDP plataforma bateraturako. Hurrengo epemuga, 2024.10.10.
- **DIGITAL-ECCC-2022-CYBER-03-NAT-COORDINATION.** Zibersegurtasuneko Konpetentzien Europako Zentroari (ECCC) lotutako koordinazio-zentro nazionalen (NCC) sarea hedatzea, hala nola Letoniakoa. Estatuko zentroari laguntza finantzarioa ematea, Letoniako enpresa txiki eta ertain komertzialei zerbitzu eman diezaien zibersegurtasunaren eraldaketan. Hurrengo epemuga, 2024.09.10.
- **DIGITAL-Chips-2024-SG-CPL-5.** CPL edo lerro pilotuaren jardura operatiboak. Hurrengo epemuga, 2024.09.17.
- **HORIZON-Chips-2024-RIA-CPL-5.** CPL edo Lerro Pilotuaren ikerketa- eta berrikuntza-ekintzak (RIA), Horizon Europe berrikuntza estrategikoko esparru-programarekin lotuta. Prozesuak abian jartzeko, integratzeko eta garatzeko proposamenen deialdia. Hurrengo epemuga, 2024.09.17.

**ERC-2024-POC.** Europako Ikerketa Kontseiluaren kontzeptu-probetarako (asmakizun edo berrikuntzetarako) laguntzak. Horizon berrikuntza esparrua.

- **ERC-2024-POC.** Hurrengo epemuga, 2024.09.17.

**ERA.** Europako Ikerketa Arloa. WIDERA atala, garapen txikiagoko eskualdeetara zabaltzekoa. ERA Talents deialdiak, talentua sustatzeko, orokorra eta praktiketan oinarritua.

- **HORIZON-WIDERA-2024-TALENTS-03-01.** ERA Talents deialdi orokorra. Hurrengo epemuga, 2024.09.26.
- **HORIZON-WIDERA-2024-TALENTS-02-01.** Praktiketarako ERA Talents deialdia (fellowships). Hurrengo epemuga, 2024.09.11.

**Eurostars-3.** Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzako Enpresa Txiki eta Ertaintzako Eureka Europako Elkarte (I+G+b). Europako Berrikuntza Ekosistemak (EIE). Horizon berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-EIE-2021-INNOVSMES-01-01.** Hurrengo epemuga, 2024.09.12.



### 2024ko uztaila eta abuztua

**AI Challenge 2024.** Adimen artifizialaren erronka. Teknologiaren Europako Institutuaren atala KICen (Berrikuntza eta Ezagutza Komunitateen) arteko sinergia estrategikoetarako. Horizon berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-EIT-2023-25-Cross-KIC-Strategic-Synergies.** Hurrengo epemuga, 2024.09.15.

**StandICT.eu 2026 eta IKTen humanizazio parte-hartzailea.** Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT) estandarizatzeko Behatokia eta Laguntza Mekanismoa. Horizon berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-CL4-2022-RESILIENCE-01-21.** 5. StandICT deialdia. Horizon Europeko 4. klusterra digitalizatorako, industriarako eta espaziorako. Erresilientziaren atala: Europako hainbat erronka estrategiko biltzen ditu, kasu honetan digitalizazioarena. Hurrengo epemuga, 2024.08.23.
- **HORIZON-CL4-2024-HUMAN-03-04.** IKTen estandarizazio globalaren garapenean parte hartzea erraztea. Koordinazio- eta laguntza-ekintzak (CSA). Horizon esparruko 4. klusterraren (CL4, digitala, industrial eta espaziala) HUMAN atala, teknologia humanizatzailearena. Hurrengo epemuga, 2024.09.18.
- **HORIZON-CL4-2024-HUMAN-03-03.** Humanismo digitala: pertsonak eraldaketaren nukleo gisa. CSA ekintzak. Horizonen CL4ko HUMAN atala. Hurrengo epemuga, 2024.09.18.

**XR2Industry 5.0.** Industriara egokitutako errealitate hedatua. Hardware- edo informatika-aparatuen garatzaileentzako laguntza. Horizon berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-CL4-2023-HUMAN-01-22.** Errealitate hedatuak edo XRk errealitate birtuala garatzen du, elementu bisualetatik abiatuta informazioa eskuratzeko aukerekin. Berrikuntza-ekintzetarako deialdia. Horizon esparruko 4. klusterraren (CL4, digitala, industrial eta espaziala) HUMAN atala, teknologia humanizatzailearena. Hurrengo epemuga, 2024.09.17.

**Aktibo intelektualen kudeaketa.** Jatorri publikoa edo akademikoa duten ikerketa-erakunde edo enpresentzako laguntzak, balio intelektualak balio ekonomiko bihurtzeko. Horizon berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-CL4-2024-HUMAN-02-35.** Aktibo intelektualak kudeatzeko koordinazio- eta laguntza-ekintzak (CSA) ikerketa-erakunde publikoentzat, erakunde akademikoentzat eta haien spin-off-entzat edo eratorritako enpresentzat. Horizon esparruko 4. klusterraren (CL4, digitala, industrial eta espaziala) HUMAN atala, teknologia humanizatzailearena. Hurrengo epemuga, 2024.09.10.

**Material berritzaileak.** Estatuko edo tokiko ekimenak babestea. Horizon berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-CL4-2024-HUMAN-02-36.** Sinergiak nazioko eta eskualdeko ekimenekin. Koordinazio- eta laguntza-ekintzak (CSA). Horizon esparruko 4. klusterraren (CL4, digitala, industrial eta espaziala) HUMAN atala, teknologia humanizatzailearena. Hurrengo epemuga, 2024.09.18.

**Adimen artifiziala (AI) eta robotika:** ahalmen handiagoko ereduak, datu-modalitate berriak integratuta, sendotasun eta azalgarritasun handiagoarekin. Horizon berrikuntza esparrua.

- AI (edo AA)-ren, datuen eta robotikaren arteko aliantza. Ikerketako eta berrikuntzako RIA ekintzak. Horizon esparruko 4. klusterraren (CL4, digitala, industrial eta espaziala) HUMAN atala, teknologia humanizatzailearena. Hurrengo epemuga, 2024.09.18.
- **HORIZON-CL4-2024-HUMAN-03-01.** Tamaina handiko AA-ereduak sustatzea: datu-modalitate berriak integratzea eta gaitasunak hedatzea.
- **HORIZON-CL4-2024-HUMAN-03-02.** Adimen artifizial "azalgarria eta sendoa".





### 2024ko uztaila eta abuztua

**EIT Health.** EIT Teknologiaren Europako Institutuaren Osasun Atala, eta bere KIC berrikuntza- eta ezagutza-komunitateak. Intsignia-deialdia edo nagusia. Horizon berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-EIT-2023-25-KIC-EITHEALTH.** EITren jarduera-planak (BP): EIT Health BP 2023-25. Hurrengo epemuga, 2024.09.18.

**Accelerate EIT Manufacturing.** Enpresa berrien azelerazioa. EIT Teknologiaren Europako Institutuaren fabrikazio-atala eta KIC berrikuntza- eta ezagutza-komunitateak. Horizon berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-EIT-2023-25-KIC-EITMANUFACTURING.** EITren jarduera-planak (BP): EIT BP 2023-25. Hurrengo epemuga, 2024.09.10.

**RawMaterials Booster.** EIT Teknologiaren Europako Institutuaren eta KIC berrikuntza- eta ezagutza-komunitateen lehengaien dibisioa. 2024-25 sustapen-laguntza, gorabidean dauden enpresentzat eta ETEentzat. Horizon berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-EIT-2023-25-KIC-EITRAWMATERIALS.** EITren lehengaien (Raw Materials) jarduera-plana (BP) sustatzeko deialdia (Booster). EIT RawMaterials BP 2023-25. Hurrengo epemuga, 2024.09.17.

**Hiri-mugikortasuneko gaitasunetarako gunea (UM), EITUM BP 23-25.** Teknologiaren Europako Institutuaren (EIT) UM atala. Finantza-laguntzak RIS Berrikuntza Eskemako espezialistentzat (garapen txikiagoko eskualdeetarako) eta gorabideko enpresentzat. EIT UM eta haren KIC (Ezagutza eta Berrikuntza Komunitateak). Horizon berrikuntza esparrua.

- **HORIZON-EIT-2023-25-KIC-EITURBANMOBILITY.** EITren UM ataleko 2023-25 jarduera-plana (BP).
- **EIT UMren deialdi ireki iraunkorra,** gorabidean dauden enpresei finantza-laguntza emateko eskaerak aurkezteko Hurrengo epemuga, 2024.09.06.
- **Competence Hub gaitasunetarako gunearen iraupen luzeko deialdi irekia.** Hurrengo epemuga, 2024.09.30.
- **RISUMS.** Deialdi irekia, 2025ekoa, RISeko UMSentzat (hiri-mugikortasunean espezialistak) (eskualde-berrikuntzaren eskema, aurrerapen txikiak dituen EBko eremurako). Hurrengo epemuga, 2024.09.30.

*“EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN” webgunea*